



AMEZKETAKO UDALA

AMEZKETAKO UDALAK SAN MARTIN PARKEAN JARRIKO DUEN ETXOLA USTIATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA AGIRIA – 2025 URTEA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. IZAERA

Sektore Publikoko Kontratueta, azaroaren 8ko/2017 Legeko 9 artikulua eta, Administrazio Publikoen Ondareko, azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 110 artikulua eta aplikagarri gertatzen diren gainerako artikuluen arabera, honako kontratua zuzenduko da, bere prestaketari eta esleipenari dagokionez, aipatu 33/2003 Legeagatik, eta bere garapeneko xedapenengatik eta, arau hauetan aurreikusten ez diren egoeretan, Administrazio Publikoen kontratu legeriaren bidez. Kontratuaren efektuak eta iraungipena 33/2003 lege bidez eta zuzenbide pribatuko arauen bidez zuzenduko dira.

Operazioaren berezitasunagatik, espedientea tramitatzen da kontratua zuzenean esleitzeko, plegu honetan zehazten den moduan, aurrez deitutako lehiaketa garatuta.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua da herritarren erabilerarako den San Martin parkean Udalak taberna gisa jarriko den etxola erabili eta ustiatzeko baimena ematea.

3. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratatzeko organo eskuduna Alkatea da. Kontratazio organo horrek du administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sor daitezkeen zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak araudi aplikagarriarekin bat etorritik. Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta kontratistak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean inpugnatzeko.

4. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisikoak hartu ahal izango dute parte jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimen ekonomiko, profesionala finantzario frogatzen eta tekniko badituzte, edo eta administrazioarekin kontratatzeko debekuren bat ez badute.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak 2025eko maiatzaren 1etik 2025eko urriaren 31 bitarteko iraupena izango du, gehienez. Ezin izango da luzatu.

6. LIZITAZIOAREN PREZIOA

150 €.



AMEZKETAKO UDALA

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

7. ESLEITZEKO PROZEDURA

Lehiaketa fasea burututa kontratu honen zuzeneko esleipena egingo da, ostalaritzan izandako eskarmentuaren arabera puntuaketaren bitartez.

Lehiaketa fasea eskabideak aztertu, onartu eta klasifikatzean datza.

8. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Eskaintzak Udalaren sarrera erregistro orokorrean eskuz aurkeztuko dira, bulego ordutegian (8:00etatik 15:00etara) 2025eko martxoaren 19tik apirilaren 15 bitartean, biak barne.

Baitere, Posta zertifikatuz bidal daitezke proposamenak.

Kontratazio honen agiriak eta dokumentu osagarriak ere web-orrian ikus daitezke: www.amezketa.eus.

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztu beharko dira.

Lizitatzailerak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du.

Bakarrik aurkeztu bada, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.

Lizitatzailerak bi gutunazal aurkeztu beharko dituzte itxita eta gutunazal bakoitzean proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak jarriko dira eta izenpetuta egongo da:

1.- "SAN MARTIN PARKEKO ETXOLAREN KONTRATUA – A GUTUNAZALA".

Hona hemen gutunazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- Lizitatzaileraren nortasun-agiri nazionala.
- Oinarri hauen I. Eranskina ondo beteta.
- Agiri honetako 16. klausulako hizkuntza baldintzak betetzen direla ziurtatzeko agiriak edo euskararen maila egiaztatze elkarriketa egin nahi duela jasotzen duen adierazpena. Baitere, hala badagokio, eskatzen den hizkuntza-maila baino gorenagoa den titulua aurkeztuko da.

2.- "SAN MARTIN PARKEKO ETXOLAREN KONTRATUA – B GUTUNAZALA".

Gutunazal honetan zerbitzua dinamizatzeko proposamen-egitasmoa aurkeztuko da.

9. KONTRATUA ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamenak balioesteko eta eskaintzarik onena zein den zehazteko, hainbat adjudikazio-irizpide hartuko dira kontuan.

Modu automatikoan kuantifika daitezkeen irizpideak: 8 puntu:

- Ostalaritzan eskarmentua izatea: 0,1 puntu hilabete bakoitzeko, 5 puntu.
- Euskara maila gorenagoa izatea: 3 puntu

Balio-iritzien bidez ebalua daitezkeen irizpideak: 5 puntu:

- Zerbitzuaren dinamizazioa: Proposamenean egitasmo bat aurkeztu beharko da, non jasoko baitiren zerbitzua hobetzeko ekintza kulturalak (musika, antzerkia, bertso-saioak). Ekintza horiek baloratzeko kontuan hartuko dira ekintza-kopurua eta ekintzaren kalitatea.



AMEZKETAKO UDALA

10. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako eginbeharrak beteko dituela bermatzeko, 1.000 euroko behin betiko bermea jarri behar du.

Sektore Publikoko Kontratueta, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori.

Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Kutxabankean sartuko da ES29-2095-4408-5610-6002-4469 zenbakiko kontu korrontean, eta abonu-agiriaren kopia bat eramango da Udalera. Horrekin batera kontu korronte baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzerakoan dirua bertan sartzeko.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunei bermea itzuliko zaie, osorik edo –kasua bada- zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

11. AGIRIAK SAILKATZEA, LEHIATZAILEAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK IREKITZEA

Kontratazio-mahaia honela osatu edo eratuko da:

Mahaiburua: Alkatea.

Mahaikideak: Alkateordea, Udal Idazkaria eta Administrazio Orokorreko administraria, mahaiaren idazkari lanak beteko dituenak.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Kontratazio Mahaia bilduko da eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du.

Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren, Mahaiak zerrenda osatuko du, lizitazioan onartuak izan direnekin, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.

Baztertze nahiko arrazoibidea izango da eskatutako agiri guztiak ez aurkeztea edo gutunazalak behar bezala ez aurkeztea edo sinatu gabe agiriak aurkeztea.

Lehiaketa fasea bukatuta, kontratuaren esleipen zuzena egingo da,

Aurkeztutako eskaintzen A gutunazalak etorri nahi duten lehiatzaileen aurrean irekiko dira 2025eko apirilaren 16an eguerdiko 12:00etan. B gutunazala apirilaren 22an zabalduko da, eguerdiko 12:00etan.

12. KONTRATUA ESLEITZEA

Adierazitako lehentasun arauen arabera, kontratuaren esleipena, eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 6 egun naturaleko epean egingo da.

Epe horren barne egingo da, norbaitek eskatu izan badu, euskeraren ezagutzari buruzko elkarrizketa.

Udalak, esleipena egin baino lehen, kontratua ez egitea erabaki dezake, herri-onurako arrazoiak direla- eta; edota izapidetutako prozeduran atzera egin dezake, prozedurak akats konponezinak baditu.

Kontratuaren esleipenak beti arrazoitua izan behar du, eta izangai edo lizitatzaleei jakinaraziko zaie. Aldi berean, contratazio-organoaren kontratatzaileen profilean ere argitaratuko da.

Kontratazio-organoak irabazlea gertatzen den lizitatzaleari eskatuko dio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta zazpi egun balioduneko epean, erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia edo ziurtagiria ekarri, ez behar bakoitzeko 30.000 eurokoa.

Kontratua ez bada esleitzen adierazitako epean irabazleak errekerimendua behar bezala bete ez duelako, beste deialdi bat egin aurretik Administrazioak aukera izango du, lehenengo irabazlearen atzetik datorren



AMEZKETAKO UDALA

lizitatzaillearen alde, horien eskaintzak sailkatuta gelditu diren hurrenkeraren arabera, baldin hori egiterik badago.

Aurkeztutako eskaintzak, bai onartutakoak bai ireki gabe baztertutakoak edo ireki ondoren atzera botatakoak, bere espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu ondoren errekursoak jartzeko epea irekiko da. Epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura utziko da.

Dokumentazio hori interesdunen eskura jartzen denetik hilabeteko epean (1 hilabete) inork jasotzen ez badu, administrazioak pertsona edo enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake.

13. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatuko da, horretarako Udalaren aurrean aurkeztuz. Kontratua sinatzen denean geratuko da perfektionatuta.

III.- KONTRATUA BETETZEA

14. KONTRATUA BETETZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura beteko da.

Kontratua agiri honetan jasotako klausulekin eta, behar denean, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoekin bat etorri beteko da, eta Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo bere mendeko pertsoneri lepora dakizkiekeen ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agin dezake.

15. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

Hauek izango dira esleipendunaren betebeharrak:

Esleipendunak zergadun modura alta emanda egon behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta bere zerga betebeharrak kitatuta edukiko ditu eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman beharko du jarduera hau hasterakoan.

Etxola jendearentzat irekita eta zerbitzua emateko moduan eduki beharko du:

- Derrigorrezko epea:
 - + egunero: 2025ko ekainak 20etik 2025ko irailak 7 arte.
 - + asteburuetan: 2025ko ekainak 1etik 2025ko ekainak 19 arte; 2025ko irailak 8tik 2025ko irailak 28 arte.
- Borondatezko epea: 2025ko maiatzak 1tik maiatzak 31 arte; 2025ko irailak 29tik urriak 31 arte.

Astelehenetik asteazkenera egun bat finkatu daiteke atseden-egunerako.

Esleipendunak berak zuzenean bete beharko ditu kontratuan finkatutako zereginak.

Horretarako, beharrezkoa dela iruditzen bazaio, lanerako laguntzaileak eduki ditzake.



AMEZKETAKO UDALA

Laguntzaile horiek ez dute inolako lotura edo lan harremanik izango Udalarekin, esleipendunen ez beste inoren kontura lan egingo dute.

Esleipendunek, edo hala izanez gero, etxolan diharduten pertsonen zerbitzua gutxienez euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dute.

Jendearentzako zerbitzu ordutegia: astelehenetik ostiralera 15:00etatik 23:00etara bitartean. 24:00etarako dena jasota egon behar du. Asteburuetan eta jaiegunetan 11.00etatik 23.00etara.

Jardueran zehar, baldintza meteorologiko txarrak diren egunetan, esleipendunak aukera izango du egun horretan etxola ez zabaltzeko.

Aipatutako jarduera egiteko indarrean dagoen araudian baimendutako edariak eta janari ontziratuak soilik salduko dira instalazioan, eta ez bestelako produkturik.

Guztiz debekatuta dago janariak manipulatzea.

Esleipendunek 18 urtetik beherakoei edari alkoholduak saldu eta hornitzeko debekua bete beharko dute. Debeku hau gogoratuz kartela eskegiko du etxolan.

Etxola eta bere barruan beharrezko diren instalazioak Udalak bideratuko ditu.

Esleipendunak zerbitzuarekin zerikusia duten instalazioak ondo funtzionatzeko moduan, txukun eta garbi eduki beharko ditu,

Esleipendunak, gainera, Udalak horretaz emandako jarraibideen arabera jokatu beharko du eta erabaki horien aurka ezin izango dute erreklamaziorik egin ez eta kalte-ordainik eskatu ere.

Era berean esleipendunari dagozkio kontratuaren xede diren instalazioen segurtasuna eta zaintza; hauek irekitzeaz, ixteaz eta txukun edukitzeaz ere arduratuko da.

Argindarra Udalaren kontura izango da.

Plastikozko zabor-ontziak jarriko dira etxolan, komunetan nahiz parkearen eremuan sortutako hondakinak gaika biltzeko, argi eta garbi bereizitakoak. Lanaldia bukatu ondoren esleipendunak sailkatutako hondakinak jaso eta 24:00ak baino lehen inguruan dauden edukiontzietan bota beharko dituzte, bakoitza dagokion edukiontzian.

Etxolan lanean diharduten pertsona guztiek behar bezala jantzita egon beharko dute, eta gai honetaz Udalak emandako jarraibideak beteko dituzte.

Etxolan garbitzeko erabiliko dituzten produktuek ingurumena errespetatu beharko dute (ekologikoak eta biodegradagarriak).

Esleipenduna izango da emandako baimenaren ondorioz pertsonen eta abarrei eragindako edozein kalteren erantzule.

Udalak ez du bere gain hartuko hornitzaileei ez ordaintzearen, instalazioetan gerta daitezkeen narriadura edo lapurreten edo esleipendunek hirugarrenei eragin diezazkieketen kalte edo galeren gaineko erantzukizunik. Horretarako esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru-poliza izenpetu beharko du: ezbehar bakoitzeko gutxienez 30.000 euroko estalduraz.

Udalaren baimenik gabe ezingo zaio inola ere kontratua beste bati laga, ez eta osorik edo zati bat azpikontratatu ere.

Hiri-altzarietan ezingo da saltzeko produktuei buruzko iragarki, kartel edo itsasgarriarik jarri, bai ordea prezioen zerrenda eta adin txikikoei alkohola saltzeari buruzko debekuarena, zeinak euskaraz izan beharko duen.



AMEZKETAKO UDALA

Esleipendunak ezingo dute erabili orohar jendea gogaituko duen zaratarik sortzeko moduko bozgorailu, irrati edo antzeko tresnarik, baldin eta udalak beren beregi horiek ez baditu onartzen. Gaueko 23:00etatik aurrera ezingo da musikarik jarri edo ekitaldi zein emanaldirik burutu, ekitaldi zein emanaldi hauek, egin aurretik behar adinako denboraz udalari jakinaraziko zaizkio, eta udalak hauek egitea debekatu ahal izango du, horretarako arrazoirik balego.

Esleipendunek une oro baimendu eta aintzat hartu beharko dituzte, etxolaren funtzionamendua klausula-agiri honetan eta ondorengo legezko xedapenetan aurreikusitakoarekin bat datorrela egiaztatzeko, Udalak zerbitzuaren kudeaketaren inguruan egin ditzakeen ikuskapen tekniko, ekonomiko edo ingurumenekoak.

Kontratua bukatu eta hurrengo 30 eguneko epean, esleipendunak beharturik egongo dira instalazioarekin okupatutako jabari publikoko ondasunetik alde egin eta libre uztera.

Esleipendunak emakidaren amaieran euskaraz idatzitako memoria ekonomikoa aurkeztu beharra izango du.

16. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea (Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6.artikuluaren ezarria eta Euskararen Erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen eta hori garatzen duten araudietan arautua).

1) Kontratuaren zerbitzu hizkuntza:

Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta, kontratuaren zerbitzu-hizkuntza euskara izango da nagusiki. Zerbitzua emango duen langileak lehen hitza euskaraz egingo die bezeroari, eta hortik aurrera bezeroak lehen hitz hori ulertzen ez badu, elkar ulertuko duten hizkuntzan jarraituko dute. Prezioen zerrenda euskaraz egongo da.

2) Hizkuntza gaitasuna:

a) Zerbitzua emango duten langileek administrazio 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea izango dute.

b) Euskara gaitasuna titulu bitartez egiaztatu beharko da (administrazio 2. hizkuntza-eskakizunaren, Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4.mailaren eta Hezkuntzako 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriak) edo, bestela, Udalak egindako elkarriketaren bitartez.

3) Udalarekiko harremanak:

Normalean administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da kontratuak eragiten dituen harremanetan:

4) Hizkuntza baldintzak ez betetzea:

Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren ondorioetarako, eta, hortaz, betetzen ez badira, kontratua bertan behera uztea ekar dezakete, aipatutako legearen 223. g) artikuluari jarraiki.

17. BAZTERKETARIK EZA.

Erabilerarako lagapena egiten den enparantzan egiten diren jarduera guztietan ez dira jarrera sexista, homofobo eta xenofoborik onartuko eta ekitaldiak iragartzeko egin beharrekoetan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiliko dira.



AMEZKETAKO UDALA

18. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERA KOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Enpresa esleipendunaren ardura da, kontratua betetzeak dakartzan lanen ondorioz, hirugarren goei egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea. Horren ondorioetarako, 30.000 euroko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du.

Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen denbora osoan zehar.

19. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratuan ez dira aldaketarik onartutako, aurreikusi gabeko edo ezinbesteko arrazoibideengatik.

20. KONTRATUA BUKATZEKO ARRAZOIAK

Kontratua klausula-agiri honetan ezarritako epea amaitu ondoren bukatuko da. Hala ere, esleipendunek dagozkion betebeharrak betetzen ez badituzte, Udalak esleipena baliogabetzeko eskubidea izango du baita epemuga baino lehen bertan behera uzteko ahalmena ere, herri-intereseko zirkunstantziek edo halabeharrezko kasuek hala eskatuz gero.

21. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK

Esleipendunak behartuta daude kontratua betetzera, eta horretarako zorrotz jarraituko ditu kontratazio honen oinarri diren Administrazio-klausula zehatzen agiria eta, esleitutako lanak hobeto betetze aldera, Amezketa Udalak ematen dituen aginduak.

1.- Arau-haustek: esleipendunak egin ditzakeen arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

Arau-hauste oso larriak honakoak izango dira:

Zerbitzua gelditu edo ez ematea derrigorrezko epean.

Esleipendunen kontura dauden langileei dagozkien lanaren, Segurtasun eta Higienearen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak ez betetzea.

Kontratututako zerbitzua, osorik edo zati bat, edozein modu edo titulupean beste norbaiti laga, alokatu edo eskualdatzea.

Bi arau-hauste larri egitea.

Baimendu gabeko zerbitzuak eman edo jarduerak egitea.

Arau-hauste larriak honakoak izango dira:

Baimendutako ordutegia ez betetzea.

Gastu handirik ez dakarten aldaketa edo hobekuntzei buruz Udalak emandako aginduak ez betetzea.

Klausula-agiri honetan esleipendunentzat zehaztutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz sortzen diren guztiak, baldin eta arau-hauste oso larriak ez badira eta baldin eta horien ezaugarriak direla eta arau-hauste arintzat jotzen ez direnak.

Bi arau-hauste arin egitea.

Arau-hauste arinak izango dira pertsonalaren tratu desagokiarengatik edo zerbitzua ematean izandako akatsengatik sortutako ohiko gorabeherak.



AMEZKETAKO UDALA

2.- Zigorrak:

Arau-hauste oso larriek 600 € zenbatekoaren arteko isuna izango dute eta kontratua bukatutzat ere eman ahal izango da.

Arau-hauste larriek 150 – 600 € arteko isuna izango dute.

Arau-hauste arinek beti ohartarazpena ekarriko dute berekin eta 150 € arteko isuna ere ezarri ahal izango da.

Arau-hauste larri eta oso larriak behin baino gehiagotan egiteak kontratua bertan behera uztea eta esleipendunak desgaitzea ekarriko du. Baita ere hurrengo urtean esleipenean parte hartzeko eskubidea ez izatea.

Zigorrek ezartzeak ez du baztertzen Udalari kontratua ez betetzeagatik eskubidezkoak dituen kalte-galerak ordaintzea.

Klausula-agiri honetan ezarritako ingurumen-baldintzak ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi nahikoa izango da.

Aurrez zerrendatutako isunak jartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

Esleitzen den zerbitzuarekin lotutako edozein salaketa edo kexa jasotzen bada, esleipendunei horren berri emango zaie, hamar (10) eguneko epe luzaezinean idatziz aurkez dezan bere eskubidean egoki iruditzen zaiona.

Epe hori pasa ondoren, Amezketa Udaleko organo eskudunak, dagokion departamentuak txostena egin ondoren, esleipendunen erantzunik egon ala ez, egoki iruditzen zaion ebazpena hartuko du. Berehala ebazpen horren berri esleipendunari emango zaio, ebazpenean adierazitako egunean bete dezan.

22. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari honakoak dagozkio: a) kontratua interpretatzea b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak argitzea c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea d) kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, 33/2003 Legeak ezarritako muga barruan eta horiek zehaztutako baldintza eta ondorioak betez.

23. INSTALAZIOAK ITZULTZEA

Kontratuaren epea bukatzen denean, etxolaren lagatzaileari itzuliko zaio instalazioa, Udalak eskatu behar izanik gabe.

Orohar, beste azpiegiturak hartutako egoera berdinean itzuli beharko dira.

24. KONTRATUAREN GAINEKO GENERO BALDINTZAK

Kontratu honetan Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako Legeak, ezartzen dituzten printzipioak eta obligazioak bete behar dira.

Dokumentazioan, publizitatean, irudietan edo materialetan ez da hizkuntzaren erabilera sexista egingo, emakumeak diskriminatzen dituzten irudiak edo estereotipo sexistak saihestuko dira, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol aniztasuna eta genero nortasunak bultzatuko dira balio gisa.



AMEZKETAKO UDALA

Kontratuaren esleipendunaren plantillari emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren aplikazioa bermatuko zaio, prestakuntza politikei, hautaketari, sailkapen profesionalari, arretari, sustapenari, ordainsariei, egonkortasun eta iraupenari, ordezkaritzari, laneko segurtasun eta osasunari, edo lanaldiaren iraupen eta antolaketari dagokienez

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio pribatu mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: 33/2003 Legea eta ordezkotza 9/2017 Legea.

26. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Kontratua interpretatuzetik, aldatuzetik, bukatuzetik eta horren ondorioetatik sortzen diren auziak kontratazio-organismoak ebaztuko ditu. Horretarako hartutako akordioek administrazio-bidea agortu egingo dute eta berehala bete beharrekoak izango dira. Akordio horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorritik; dena den, 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Prozedura Erkidearenak, 123 eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute.

EGINBIDEA: 2025eko martxoaren 17ko Alkatezaren 47. Ebazpenaren bidez onartua.



AMEZKETAKO UDALA

**I. ERANSKINA
AITORPEN EREDUA**

Izena:

Adinez nagusia

NAN:

Helbidea:

Telefona:

Emaila:

AMEZKETAKO UDALAK SAN MARTIN PARKEAN BAIMENDUTAKO ETXOLA USTIATZEKO deitutako prozeduraren berri izan dut, eta hona hemen nire

ADIERAZPENA:

- 1.- Hitz ematen dut kontratua onartutako klausula-agiriaren arabera burutuko dudala.
- 2.- Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoaren agiria, eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-osorik.
- 3.- Kontratuak burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditut.
- 4.- Aitortzen du Herri administrazioarekin kontratatzeke ahalmena duela, jarduteko gaitasun osoa izanik, ez dagoelako aurreikusitako inolako debekutan sartuta; eta ez duela laneko segurtasun eta osasun arloan arau-hauste oso larria egiteagatik zehapen irmorik jaso.
- 5.- Euskeraren ezagupeneko honako titularen jabe naiz eta kopia gehitzen dut: _____ / Euskeraren ezagupeneko elkarriketa egin nahi dut, titulurik ez dudalako.

.....-(e)n, 2025eko-ren-(e)an